

IÑAKI IRASIZABAL

ZORIONEKO FAMILIA



Iñaki Irasizabal

**ZORIONEKO
FAMILIA**

MIRINDEN GARAIETAN

Sagarrak euripean ostu dituzten guztiei

Aita lapurra zen, ama mozkorra eta ni gezurtia.

–Seguru zaude, ume? –aulkian aurreratu zen galdera egiteko, eta nik, sen hutsez, atzera egin nuen nire eserlekuan. Mahoizko prakak eta alkandora koadroduna zeramatzan jantzita. Orbainez jositako beso eta esku haiek langile batenak ziren; hala ere, garbi neukan hura zela agintzen zuena. Ez alboan zutik, haserre itxurarekin zeukan emakume iharra, ezta ipurdia altzari baten aurka bermaturik zegoen trajez jantzitako gizon lodia.

Kontainer handia baino ez zen bulego hura portuan zegoen, eta bertatik garabiak eta langileen orroak entzun genitzakeen esfortzurik gabe denok isilik geundenean.

Baietz egin nuen buruarekin. Astiro eta kontzentrazio handiz. Gela hartan zeuden beste hirurek begiradak trukatu zituzten, eta ondoren, agintzen zuen gizonak atera begiratu zuen. Ate haren atzean aita zegoen. Dantzalekuaren atarian lotuta utzi duten astoa, barrura sartu ezinik. Ez zen egoera

berria berarentzat, eta aulki batean lasai asko eserita imajina nezakeen. Zetozkeenei antzeman nahirik aurrea hartzeko.

–Baina, zu ez zara hamar eta erdietan esna egongo –emakumeak esku biekin heldu zion idazmahaiari, eta niregana zertxobait makurtu zen hitz egiteko–. Nola jakin dezakezu aita etxean zegoela?

Erantzuna ezagutzen nuen. Ikasita neukan ezin nuela berehala bota. Pare bat segundo isilean joan ziren.

–Zerbezak edaten zebilen telebista aurrean, eta haren korroskadek ez zidaten lorik hartzen uzten –esan nion, garai hartan telebistarik ez genuen arren.

Emakumeak idazmahaitik aldendu zituen eskuak, erreko balu bezala; atzera pausoa eman zuen. Agintzen zuenak ernegu aurpegia jarri zuen eta alboko gizon lodiaren hazpегietan irribarre bat marraztu zen. Trajea zimurrez beterik zeraman, jantzita lo egin izan balu bezala.

–Seguru zaude, gazte? Pentsa egia esanda ez zenukeela tarte luze batean berriro ikusiko. Ez zenukeela berriro ama jotzen ikusiko –bota zidan agintzen zuenak astiro, mesedea egiten ari denaren doinuarekin.

Nire gogoaren zati batek gezurretan ari nintzela aitortu nahi zion. Aita eraman zezatela nonbaitera erregutu.

–Aitak ez du ama jotzen –eta hura izan zen arratsalde hartan esan nuen egia bakarra. Agurtzenerena gertatu zenetik behintzat, aitak ez zuen ama jo, sekula.

Gelako helduek berriro trukatu zituzten begiradak. Keinu batekin galdera egin zion agintzen zuenak trajedunari.

–Ez daukagu ezer –esaten hasi zen hau, tente jarriz eta gorbata zuzenduz–. *In dubio pro reo*. Garbi dago lapurra

bera dela, baina epaile baten aurrean frogatu ezinik gaude. Joaten uztea beste aukerarik ez dago –agintzen zuenak birao egin zuen eta aurpegi guztia desitxuratu zitzaion. Zutik jarri eta gelatik irten zen atea zabalik utziz. Burua atzerantz jiratu nuen, eta aitak, lotsaz bezala, gelan burua sartzen zuela ikusi nuen. Inork ez zion ezer esan eta bera niregana etorri zen.

–Goazemak, ama zain zegok –hitzak niri zuzenduak egon arren, emakume iharrari eta gizon trajedunari begiratzen zien txandaka.

Zutitu eta joaten hasi ginen. Atean geunden, emakumeak “umea txikia duk, horrek salbatzen hau, baina haziko duk” esan zionean. Aita gelditu egin zen hitzak entzutean, burua jiratu gabe, eta hitzak bukatu zirenean oinez jarraitu genuen berriro. Hamabi urte nituen baina, ziztrin hutsa nintzenez, hamar edo gutxiago neuzkala pentsa zezakeen ezezagun batek. Horrek sinesgarriago egiten zituen nire lekukotzak, nire gezurrak. “Ez hadi hazi urte batzuetan, oraindik behar haut” esaten zidan aitak umore onean zegoenean.

1979ko udaberria zen.

Leihotik begiratu nuen: oraindik ez zegoen erabat ilunduta; itxaron beharra zegoen. Ezagutzen nuen zetorrena. Ez zen lehenengo aldia. Arnasa azkartu zitzaidan; ezin nituen eskuak geldi eduki. Gaizki sentitzen nintzen. Dena aita-
ren errua zen. Gorroto nuen aita. Aurrean neukan arte. Zergatik ezin zitekeen izan beste aitak bezalakoa?

Sukaldeko mahaira eserita zegoen amari begira gelditu nintzen, eta bera konturatu egin zen. Ez geneukan argirik etxe barruan, kandela txatxar bat baino ez; hala ere, konturatu zen. Iluntasunean ikustera ohituta geunden, katuak bagina bezala. Ezeroso, sukaldetik ihes egin zidan. Bazekien bidean egon arte aitak ez ziola botila emango. Bazekien igartzen zitzaiola eta ez zegoen horretaz harro.

Herriko goiko aldean bizi ginen. Sei hilabete generamatzan bertan. Barruan ez zitzaigun ia ezer gelditzen. Koltxoiak, aulkiak, lapikoak... eraman genezakeen guztia DKWaren barruan zegoen ordurako. Baita mila aldiz maruskatutako maindireak ere; berriro garbituz gero urratuko ziren izarak...

Azkenik agertu zen. Aita. Linterna bat zekarren eskuetan eta sukaldean sartu zenean bere aurpegia argitu zigun. "Prest zaudete?". Ez zirudien batere urduri. Aita normal bat, egunero bezala lanera zihoala esaten. Ama zutitu egin zen eta denok irten ginen kalera isilik.

DKWraino bost minutuko bidea genuen. Furgoneta aldapan behera aparkatuta zeukan aitak, errepide ertzean. Azken unean, amak buelta hartu eta etxera itzuli zen azkar. Aitak zerbait itsusia esan zion ahapeka, baina ama ez zen gelditu. Minutu bat geroago bertan zegoen berriro. Gerri estuko kafetera zekarren eskuan. Gerrara bagindoaz eta hura gure bandera balitz bezala jaso zuen eskuan, denok ikus genezan. Aitak hasperen egin eta furgonetan barneratu zen.

Aitak ez zuen motorra piztu harik eta herriko beheko aldean egon ginen arte. Aldapan behera irristatu ginen iluntasunean. Isil-isilik zeharkatu genuen herria, horregatik

entzun nituen hain argi hitz haiek: “Horiek badoaz; ijitoak bezalakoak dira”. Mina eman zidaten. Horrelakoak entzuten nituenean, hitzak haragi samurrean iltzatzen zitzaizkidan, arantzak bezala. Amak ez zuen zirkinik egin hitzak entzutean, eta aitak irribarre ahula baino ez.

Herritik irten eta aitak azeleragailua zapaldu zuen. Furgoneta kaskarrari karranka mingarria irten zitzaion errailetatik. Aitak martxa aldatu eta abiadura horretan egonkortu zen. Aitak zeharka begiratu alboan zeraman amari, eta hau begirada etengabe mugitzen ari zela ikusi zuen, ahoa ixteko gai ez zela.

–Hi –esaten hasi zitzaidan atzerako ispilutik–, oinetan plastikozko botila txikia daukak, emaiok amari ito baino lehen.

Horixe egin nuen, eta amak ura basamortuan bezala hartu zuen, barruan ura baino zerbait gogorragoa zeraman arren.

Isilik jarraitu genuen ordu laurden inguruan. Ama lo gelditu zen. Ni, atzeko eserlekuaren kantoï batean uzkuriturik nindoan arren, erne nengoen. Eta orduan aitak esku bat bidali zuen atzeraka, bestearekin bolanteari eusten zion bitartean. “Itzarririk hago?”. Eserlekuan tentetu nintzen. Aitak atzeraka botatako eskua moztutakoa zen. Ezkerreko eskuan atzamar biren puntak falta zitzaizkion. Berak txikitant aizkorarekin gertatutako istripua zela kontatu arren, ez zen egia. Gaztetan tailer batetik metalak lapurtzen ari zirela ugazaba agertu eta arinari eman behar izan zioten. Orduan aitaren lagunak besoetan zeraman makina astun bat kamioi baten atzealdean erortzen utzi zuen. Ilun zegoen gaua zelako, eta lagunak ez omen zituen aitaren atzamarrak ikusi.

–Jaioterrira itzultzen ari gaituk. Han zakur bat eduki dezakek –esan zidan, eta niri gaueko iluntasunean aurpegia piztu zitzaidan. Aita aurrera begira zegoen eta ez zuen nire aurpegia ikusi–. Nahi baduk, noski.

–Bai, bai, nahi dut. Eta ze zakur mota izango da, aita?

–Ehiza zakurra, zer bestela? Zertarako balio ditek besteek? Pointer-a agian –une hartan, gau ilunean ihesean, lapurrak bezala, ez nukeen nire aita inoren aitagatik aldatuko. Horrelakoa zen. Hizketan hasi eta bihotzaren ordeztu neukan harri gogorra sugus biguna bihurtzen zitzaidan.

Aita bertakoa zen. Bertan jaio eta hazitakoa. Beste edonora joateko aukera izanda, ez ginen handik agertzen. Aitona oso zaharra zen eta aitaren anaia Valentinek agintzen zuen. Gizon lasaia omen zen –hori askoz ere geroago jakin nuen–, aita agertzen zen arte. “Hau egitea bururatzen bazaik... berriro negu hartakoa gertatzen baduk... lapurreta baten berri batekin baldin badatozkit...” horrelakoak esaten zizkion aitari ahotsa altxatu gabe, aita albotik ihes egiteko ahaleginean zebilen bitartean. Billy Wilder-en komedia horietako baten protagonistak ziruditen. Garai hartan, aitak ez zuen onartuko osabaren etxean bizitzerik, nahiago kalean egon eta gu berarekin. Ailegatzerakoan haren etxera joaten zen bidezkoa iruditzen zitzaiolako, itzulia zela beste inork kontatu baino lehen.

Luisa alargunak utzi zigun etxe txiki batean bizi ginen. Guardia zibilen kontrol batean hil zioten semea; aita haren laguna zen. Garai hartan mundu guztiak aipatzen zituen

grisak, eta nik behin aitari galdetu nion grisen aurrean korrika egindakoa ote zen. Bekainak asko igota begiratu eta “ni grisen aurrean korrika? Bai zera! Grisek egiten zitean korrika nire aurrean” esan zidan oso serio.

Harrizko etxea zaharra zen, eliza ondoko kale estu batean zegoen; hotza neguan eta itoginak euriteetan. Etxea garbitu, konpondu eta txukuntzeko, Luisak ez zigun besterik eskatzen. Aita arratsalde batean desagertu zitzaigun eta hiru ordu geroago pare bat poltsa janari eskuetan jaitsi zen furgonetatik. Poltsak barruan utzi eta laguntzeko eskatu zidan; elkarrekin joan ginen furgonetaren atzealderaino eta, atzeko atea irekitzean, barruan intzirika ari zen zakur zuri-kafesne kolorekoa irten zen gu guztiok usnatzeko prest. Kumetik aspaldian gutxi zeukan setter-a zen.

Takatun-ek eta biok elkar ezagutzen genuen bitartean, aitak telebista astun bat besoetan hartu eta etxeratu egin zuen. Zuri-beltzekoa zen eta sarritan gaizki ikusten zen, elur antzeko zerbaitek irudia lausoturik; hala ere, hura etxean sartzen ikustean denetik genuela pentsatu nuen.

Amak ez zuen irribarre egin telebista ikustean. Barrunbeetan zeukan zerbaitek galarazten zion irribarre egitea. “Ez zen zure errua izan. Nirea izan zen” esaten zion aitak sarri. Batzuetan hauxe gehitzen zuen: “Nirekin zegoen; zu ume txikia zaintzen ari zinen”. Ordurako banekien ume txikia neu nintzela. Amak hitz horiek zurrun aditzen zituen, haizea zuhaitz adarretan balitz bezala, baina alabaren oroitzapena zebilkion buruan eta horrek esaten zion irribarre egitea hari traizioa egitea litzatekeela.

Errepide ertzeko taberna koskor batean aurkitu zuen lana aitak. Sagarrak *batzen* edo aranak, gereziak, oilo

galduren bat *berreskuratzen*... auzoetatik ibiltzea, hori izaten nuen nik lana. Gero, sarritan tabernatik pasatzen nintzen, baina Mirindak besteen umeentzat ziren beti, nik baso bat ur edo ezer ez. “Ez hadi kexatu. Hi ez hoa eskolara; udazkenean hegoaldera joango gaituk eta ez dik merezi orain eskolan sartzea”.

Ez nuke esaten jakingo zergatik geunden hirurok elizan arratsalde hartan. Aitaren belaunaldiko gizona zen istripuz hil zena. Elizaren erdialdeko eserleku berean geunden hirurok: aita, ama eta ni, ilunez jantzirik. Eliza txikia jendez mukuru, herrietako hiletetan gertatu ohi den legez. Dena zihoan normal antzean, errezo eta koruaren kantu epikoen artean, inguruko jendea asaldatzen hasi zenean. Arreta jarri eta lehenengo ilaran norbait barrezka ari zela konturatu nintzen. Jendea haserre ageri zen. “Nola da posible? Bere aitaren hiletan!”. Gorputza aurreratuz eta burua okertuz lortu nuen ikustea: neska mehe bat zen, ile gaztainakara uhinetan bezala lepo ingururaino erortzen zitzaion eta janzkera ere ez zitzaidan hiletetara eraman ohi dena iruditu. Kanpai-prakak eta blusa botoiduna zeramatzan. Garaia izan arren, ez zituela hamabost urtetik gora izango erabaki nuen. Burua makurtzen zuen barrea ezkutatzeko, baina ezinezkoa zitzaion. Une batez atzera begiratu zuen eta haren begi bizkorrek harrapatu egin ninduten. Haren sagu barreak eta jendearen gaitzespen murmurioak elizkizunak iraun zuen bitartean iraun zuten.

Hileta bukatzean, gorpua ateratzen zuten lehenik mundu guztia eserlekuetan zegoela oraindik, gorpua atzetik familia irteten zen, eta gero herri guztia. Alarguna tente eta inolako espresiorik gabe pasatu zen hilkutxaren atzetik,

alaba burumakurra irribarretsu parean, eta zertxobait atzerago izebaren bat behar zuena neska gaztea besoan ukituz, isil zedila eskatuz bezala.

Segizioari gehitzeko gure txanda heldu zenean aita, eserlekuaren ertzean zegoena, geldi zegoela konturatu nintzen. Une hartan begirada okertzean, aitaren aurpegia ikusi nuen: irribarre egiten ari zen neskari atzetik begira zegoen.

Denak berdin antzean jarraitu zuen gure eguneroko bizimoduan. Igandea heldu zen. Aitaren jaioterrian geundenean, mezatara joatera behartzen ninduen. Aldiz, bera ez zen elizatik agertzen. Batzuetan, meza ostean ardoak edaten ari ziren herriko gizonei biltzen zitzairen plazako tabernan. Horrelakoetan, ikustekoa zen osabaren aurpegia. Barrundatu bezain laster aurpegiko gihar guztiak tenkatu egiten zitzaizkion, burdin zatiren bati haginka egin balio bezala.

Igande hartan mezatan aspertu eta gero etxera itzuli nintzen, astiro eta eskuak patriketan. Kanpo aldean ez zegoen furgoneta, eta aitak nonbaiten behar zuela ulertu nuen. Etxera hurbildu bezain azkar, Takatun arrimatu eta ez zen niregandik ezertarako bereizten; azken finean, jaramon egiten zion bakarra nintzen etxe hartan. Nagi sartu sukaldean, eta han ikusi nuen, mahaira eserita: hiletako neska Mirinda botila bat edaten. Gauza biak ziren ezustekoak gure etxe barruan: neska eta Mirinda, baina neskak erakarri zuen nire arreta osoa. Irrisu begiratu zidan, ni txiste

barregarria banintz bezala. “Nor... zer...” esaten hasi nintzen, eta ingurura begiratu nuen. Han ez zegoen inor, eta neskak barre egin zuen barrurantz, bere kolkorako.

–Ixiar naiz –zutitu, hurbildu eta esku zurbil eta hezurtsua eskaini zidan–. Zure aita zerbait konpontzera joan da. Zure ama hemendik dabil –esan, eta nik eskua estutu nion. Mahuka laburreko blusa batekin eta gizonezko traje bateana zirudien txaleko ilun batekin zihoan jantzita. Dotore, baina freskoegi egiten zuen eguraldirako.

Osaba Nicolasekin gaizki konpontzen omen zen eta etxetik alde egin omen zuen. “Aita bezalakoa da” esan zidan. “Ezin zara etxetik joan, gazteegia zara” esan nion. Aitari esker, txikitatik eduki nuen garbi zer egin zitekeen eta zer ez legearekin arazorik ez izateko.

–Zure aitak dio nire amarekin hitz egingo duela zuokin gelditzeko baimena eman diezaion. Osaba ez da inor niri ezer agintzeko –ama sartu zen sukaldean ontzi bete patata besapean. Burua guregana zuzendu gabe, gure gonbidatuari etxea erakusteko agindu zidan.

Ez zegoen erakusteko asko. Komunaren egoerak edo itoginen eremuak lotsa ematen zidaten; berari, berriz, Ixiarri, jakin-mina; lepoa luzatzen zuen oinak gelditu zeuzkan bitartean. Neska segailaren keinu guztiek abentura zoragarri bat bizitzen ari zela iradokitzen zizuten. Harekin batetik bestera nindoala, komiki desberdinetako pertsonaiak nahastu balituzte bezala sentitzen nintzen. Gure lau oilo iharrei begira, galdera bat jaurti nion. Hura entzun eta Ixiarrek nire begiak bilatu zituen, horretarako gorputza zertxobait jiratu.

–A, hori. Aitak jo egiten ninduen. Gogor. Uhal luze bat zeukan eta indarrez astintzen zuen nire aurka. Sekulako mina ematen dizu horrek, larrutu egiten zaitu. Nire onerako zela zioen, baina ez zen egia. Bere deabruak baretzeko baino ez zuen balio. Hiletan bertan konturatu nintzen aita hilda zegoela. Ez ninduela berriro joko pentsatu, eta barrea eztarriraino igo zitzaidan. Ezin izan nuen gelditu –irribarre zabala marraztu zitzaidan aurpegian. Eta berak ere irribarre egin zuen–. Jo, ez dakizu nolakoak entzun behar izan ditudan horregatik. Amak ez beste guztiek sekulakoak esan dizkidate eliza barruan barre egiteagatik –oinez gindoazen etxe barrurantz; Ixiarrek irribarre arrastoak zeuzkan aurpegian, eta hala ere burumakur ari zitzaidan hizketan. Nik ezin nituen begiak harengandik apartatu–. Baita ezagutzen ez dudak jendeak ere: eroa, gaitoa, txoriburua... Ez zela apropos izan esan, eta burua okertzen dute denek, eroturik banengo bezala –niregana begiratu zuen erantzun baten zain, eta nik ezin izan nuen ezer esan; aho zabalik begiratu, besterik ez.

Bazkalosteak libre nituen. Kilkerak euren zulo-abaroeatik ateratzen aritzen nintzen batzuetan. Ziriarekin zirikatu eta otzan-otzan irteten dira. Egun hezeak bereziki aproposak dira horretarako. Euria hasi baino lehen, sekula baino eroago dabilta kantuan; erraza da aurkitzea. San Juan ermitaren osteko larrean nenbilen, klaxona aditu nuenean. Hasieran ez zela niretzat izango pentsatu eta zuloaren aurrean etzanda jarraitu nuen, baina klaxona ez

zen isiltzen. Agondu eta begiratu egin nuen. DKWa zegoen aldaparen behean geldi. Korrika jaitsi nintzen eta ni ere killkerra nintzela bururatu zitzaidan, ziriarekin zirikatu eta otzan-otzan nindoana nire kartzelara. Lakioan eroritako azkonarra bestela.

–Sagar batzuk batu behar ditiagu. Arin ibili beharra zegok, e? –begira gelditu nintzaion; bera furgoneta gidatzen ari zen, zentzunak aginduko lukeen baino arinago. Bazekien nora zihoan. Errepide ertzeko argi posteak gogoratzen ditut. Posteak lotzen zituzten hariak erdi eroriak zeuden, erraldoiren batek oharkabean eskua bertan jarri izan balu bezala.

–Egunez da. Nola ostuko ditugu sagarrak egunez?

Burua niregana okertu eta begira gelditu zitzaidan ezer esan baino lehen. Haserre zirudien.

–Euria hastear zegok. Inor ez zebilek euripean sagastietan. Eta nork esan dik zerbait ostu behar dugunik?

Isildu eta aurrera begira gelditu nintzen. Zertarako kexa antzu gehiago? Belarrondoko bat irabazteko?

Sagastia errepide bazterrean zegoen, errebuelta biren artean. Gu bertara heldu eta euria hasi zuen. Pare bat dozena sagarrondo zahar, oker eta baxu. Oihalezko zaku handia eman eta alde batetik hasteko esan zidan aitak. Ez nezala sagar bakarra ere zuhaitzetan utzi agindu, eta beste aldera abiatu zen bera. Ordurako ondo nekien nola bildu behar ziren fruta desberdinak: sagarra goiko txortenaekin atera behar da, bestela ez du luzaroan fresko iraungo.

Hirugarren sagarrondoan nenbilen, zira hori batekin jantzita norbait hurbildu zitzaigunean; larrean behera

zeturten, azkar. Aitari begiratu nion, eta nire lanarekin jarrai nezala agindu zidan. Berak ere gauza bera egin zuen.

–Ze kristo ari haiz egiten neskato horrekin?! –osaba Valentin zen lapurtzen ari ginena. Nola ez. Aitarengana zuzenean joan, eta aurrean jarri zitzaion galdera egin baino lehen. Aitak sagarrak zakuan botatzen jarraitu zuen.

–Neska horri laguntzen ari nauk. Ari gaituk. Ez dik Nicolasekin bizi nahi eta ulertzen diat.

Osaba Valentinek ingurura begiratu zuen, niregana ere begirada luzatuz, egoera ulertuko ez balu bezala.

–Neska horrek bere familia zeukak. Ezin duk hirekin eraman –eten bat egin zuen erantzunik ez zegoela baieztatzean–. Ez duk zerbait izango berarekin, ezta? Ohe konturik edo horrelakorik –aitak zakua askatu eta osabarengandik oso gertu jarri zen. Osaba askoz garaiagoa zen arren, atzera eman zuen pausoa–. Lasai, lasai, nik ez diat horrelakorik sinetsi, baina esaten ari dituk. Denok zekiagu nor haizen. Zer atera nahi duk honetatik?

Zakua berreskuratu eta sagarrak bertara botatzen jarraitu zuen aitak, lehen baino mantsoago hala ere.

–Ez diat ezer lortu nahi. Laguntza behar dik eta nik eman egingo zioat. Gainera, dena duk legezkoa. Haren amak paper bat sinatu zidak baimena emanaz.

–Mesedez... emakume horrek ez zekik non dagoen ere. Nicolasek zioak bahiturik daukazuela. Hire bila joango duk azkenean.

Aitak barre egin zuen, ozen.

–Nicolas nire bila? Egunez eta bera bakarrik?

Osaba Valentinek niregana begiratu zuen; begira gelditu zitzaidan, ezer esan gabe. Gero, buelta hartu eta etxerako

bidean hasi zen. Pare bat urrats eman eta, bere anaiari begira jarri ondoren, hizketan hasi zitzaion berriro.

–Ez diat honetaz ezer jakin nahi. Konpondu hadi heu; nik ez zekiat ezer. Eta ez itzak sagarrak herrian saldu. Gernikan prezio hobea egingo ditek.

Aitak sagarrak biltzen jarraitu zuen anaiaren hitzak entzun ez balitu bezala. Osaba aldapan gora desagertu zen azkar. Euria loditu egin zen.

Nik logelan neuzkan liburuak, eta azterketa bat handik hila-
labetera, baina ez nituen sekula liburu horiek esku artean erabiltzen. Ixiarrek hau jakin zuenean, ikasten laguntzeko prest agertu zen. Ez zuela ezetzik onartuko ere esan zuen. Erantzuten ez nionez, atximurka egin zidan besoan eta irribarre zabala gero.

Egongelan geunden biok, mahai gainean liburuak irekita. Montreal 76 nire larruzko poltsa mahaiepean, bukatzean berriro liburuekin betea izateko prest. Ama etorri zitzai-
gun zerbait jan genezan. Harritu egin nintzen, Ixiar etxera heldu baino lehen afarira arte itxaron beharra zegoen, eta hori afaria zegoenetan. Amak garai hartan gutxiago edaten zuen, edo ezkutuago bestela, bietatik bat. Orduan azaldu zigun Ixiarrek, berak kazetaria izan nahi zuela, irratian lan egiten duten horietakoa. Mikrofono aurrean hitz eta pitz aritu, eta horregatik kobratu. Amari irribarre ahul baten antzeko zerbait marraztu zitzaion ezpainetan neska gazte hura hizketan entzutean. Lehen irribarre zantzua urteetan. “Garaiz zabilta” apal esan eta sukaldera itzuli zen ama.

Handik ordu erdi eskasera, zarata etxeko atarian. Zutitu egin ginen, eta beti irekita izaten genuen egongelako ate aurretik aita ikusi genuen arrapaladan pasatzen, ardi busti bat besoetan zeramala. “Itxi kanpoko atea!” oihukatu zigun. Atera joan ginen eta ez zegoen inor. Atea itxi eta egongelara itzuli ginen. Aita etxetik irtenda zegoen, atzeko aldetik.

Ordu laurden geroago, aita etxeko atarian zegoen, tabako beltza paper zurian biltzen, zigarro bat erretzeko asmotan. Leihotik ikusi genuen. Neronek erosten nizkion tabako poltsa haiek. Usain sarkorra zuten, ez oso atsegina, arrain ketu edo gatzetan gordetako batena iruditzen zitzaidan niri. Hala ere, aitag tabako hori baino ez zuen nahi izaten. Urteak generamatzan niretzako praka berririk erosi gabe, dirurik ez zegoelako. Asteak emanak ginen lur azpitik ostutako patatak eta zuhaitz gainetik hartutako madariak jaten, baina beti zegoen tabako hura erosteko beste.

Berriro mahaira eseri eta barrezka ari zen Ixiarrek burua ezker-eskuin mugitu zuen, “zure aita mundiala da” esanez. Hitz horiek zerbait erne zidaten barrenean. Inbidia zela uste dut. Inbidia mota berezi bat agian. Paradisu guztietan daude sugeak.

—Ni oso txikia nintzenean arreba bat neukan —esaten hasi nintzen ezer pentsatu gabe. Behin hasita, banekien ezerk ez ninduela geldituko—: Agurtzane. Ni baino pare bat urte zaharragoa. Hegoaldeko lurralderen batean ari ziren aita eta ama lanean, nekazaritzan. Toki idorra, ortuak ureztatu behar diren horietakoa. Kontua da aitari ez ziotela merezi zuena ordaindu, edo hori uste zuen berak behintzat. Iparralderako bidea hasi baino lehen, eta autoan arreba zegoela, ubide batera joan eta ireki egin zuen, ugazabaren

ortu batzuk hondatu zitezen. Ez zuen egin merezitakoa ordain ziezaioten, mendekua baino ez zuen bilatzen. Arreba atzeko eserlekuan zihoan. Aitaren atzetik kanpora irten eta ubidean erori zen. Aita autora itzuli eta, atzeko atea irekita zegoela ikustean, ero baten moduan ibili zen arrebaren bila. Ubidean sartu eta itotzekotan egon arren, ez zuen lortu Agurtzane aurkitzerik. Handik kilometro batzuetara agertu zen haren gorpua.

Hizketan aritu nintzen bitartean zirkinik egin ez zuen Ixiarrek munstroa neu banintz bezala begiratu zidan. Ez dut sekula lotsa handiagorik sentitu.

Etxeko kanpo aldean nengoen sargori zetorren goiz batean. Takatun eta gomazko baloi puztu batekin jolasean nengibilen. Baloiarri ostikoa eman eta zakurra trosta motelean joaten zitzaion atzetik. Hamar bat zentimetrora zeukanean begira gelditzen zitzaion, zerbait arriskutsua bailitzan, zelatatu beharrekoa, eta jarraian, harantz mugitzen ez banintzen, niregana okertzen zuen lepoa.

–Komentuko mojak, bai... –esaten entzun nion aitari etxe barruan. Amarekin ari zen hizketan, baina aitak hormatik gertuago behar zuen, hari baino ez bainion entzuten—. Saguak omen dituzte, erruz. Horma zaharren zirikituetatik sartu zaizkie. Izurritea.

Bost minutu geroago aitak etxea utzi zuen, besapean plastiko batean bildutako zerbait zeramala. Furgonetara igo eta errepedean galdu zen.

Ez nuen goiz osoa etxe ondoan emateko ohiturarik, inork galarazi ez arren, baina egun hartan zeru urdinak eta eguzki izpi indartsuek etxe inguruari lotuta nindukaten. Luze gabe itzuli zen aita. Furgoneta edonola aparkatu eta burumakur zetorren etxerako bidean oinez. Ikusi ere ez ninduen egin. Zerbait iluna zekarren berarekin. Ez nuke azaltzen jakingo, baina ardiz mozorrotutako otsoa edo antzeko zerbait zekarkidan burura. Legamia kendu dioten ogi-orea.

Etxean sartu zen eta ni sukaldeko leihora hurbildu nintzen. Normalean ez nuen interes handirik izaten gurasoen elkarrizketetan. Hala ere, egun hartan zer gertatzen ari zen jakin nahi nuen, zerbait sumatuko banu bezala.

Aita ez nuen entzuten nengoen tokitik, ama bai berriz. Hori ezohikoa zen. Erabat. Ama kokoteraino zegoela pentsatu nuen. Ez zen horrela. Ozen baina patxadaz ari zitzaion.

—Eta udazkenean hegoaldera goazenean zer... —entzun nion amari esaten.

Gero ez zen ezer entzun eta nik belarria hormari itsatsi nion.

—Ez zaitez itsutu —esaten ari zen ama, baina ez zebilen eskean—, unibertsitea dirua da. Nondik aterako dugu? —isilunea luzeagoa izan zen orduan. Azkenik, amak hautsi zuen berriro—. Badakit lagundu egin nahi duzula, eta bai, badakit gure Agurtzanek adin bera izango lukeela, baina hori ez da nahikoa. Mihurak inguratutako sagarrondoa bezalakoak gara. Irudi ederra dirudi, baina mihura kiribiltzen hasten denean sagarrondoa itotzen ari da —eten txiki bat egin zuen jarraitu baino lehen—. Badakizu zer egin behar duzun. Ez dago beste biderik. Zuzena egin ezazu.

Orain bai, orain etxetik irten zenean etxeko hormaren alboan ikusi ninduen. Une batez gelditu eta, begiratu ondoren, bere bidea jarraitu zuen. DKWa zalaparta handia eginez irten zen etxe paretik.

Urte batzuk geroago jakin nuen nora joan zen. Institutura heldu eta Ixiar atera zuen handik. Gero, bere osabaren etxe aurrean furgoneta gelditu eta Ixiarri jaisteko esan zion, zakar. Bukatu zirela oporrak. Ixiar burumakur etxerako zidorrean aurrera zihoan bitartean, aitak, begirada etxeko leiho batean iltzatuta, moztuta ez zeuzkan atzamarretakoa batekin seinalatu zuen leihoa. Herrian denek ezagutzen dute istorio hau eta denek uste dute aitak Nicolas mehatxatu zuela.

Isil-isil bazkaldu genuen hirurok. Zerbait aldatzen ari zen, jabetzen nintzen horretaz. Ez nuen ezer galdetu, ikara jakin-mina baino handiagoa zelako. Bazkaldu ostean dena biltzen hasi ginen. Hilabeteak falta ziren uda bukatzeko. Zertan ari ginen? Zer ote zeukan aitak buruan? Hobe ezer ez galdetzea, giroa ez zen batere gozoa.

Eguna zen oraindik martxan jarri ginenean, hirurok DKW zaharrean. Laster osabaren baserriaren atarian geunden. Amak ardo merkez beteriko plastiko botila ezpainetara eramane, eta trago luzea eman zion. Aitari begiratu nion. Burua makur eta isilik.

–Jaitsi hadi. Hor geldituko haiz oraingoz –esan zidan aitak ondoren.

–Zer? –galdetu nuen.

Amak aurreko eserlekutik gorputza atzera okertu zuen, malgu, eta esku biekin nire buruari eutsiz musu luze eta

bustia eman zidan masailean. Negarrez ari zen. Ilea atzerantz eraman zuen, eta aurrera begira eseri zen berriro eserlekuan.

–Joan hadi behingoz, ostia! –aitaren hitzak entzun eta autotik jaitsi nintzen, nire arropen poltsa besagainetik zintzilik.

–Eta zer esan behar diet? –galdetu nion aitari, furgonetatik kanpo nengoela.

–Gaur ezer ez. Bihartik aurrera, egia baino ez –erantzun eta ziztu bizian irten zen DKW zaharra, legarra alboetara jaurtiz. Ingurura begiratu eta parean nirekin batera etorri zen Takatun zegoela ikusi nuen, beti bezala laguntzeko prest.

Osaba Valentinen etxera joan nintzen. Atea ireki zidaten. Inork ez zidan ezer galdetu. Eta bertan eman nituen urteetan inork ez zuen sekula ezer txarrik esan ama edo aitari buruz. Takatun etxe hartako sukaldean hil zen, zahartzaroan aurrera zihoala. Hitz onak baino ez ditut osabarentzat.

Urte asko geroago, gauerdiko ordu bietan telefonoak esnatu ninduen. Erdi lo oraindik, nor zen galdetu nuen.

–Hire aita nauk. Ama hil zaiguk. Ospitalera ailegatzten haizenerako ez nauk bertan egongo. Emaiok hilobi duina; horrenbeste zor diok. Jarri itzak lore gorri batzuk ere, mesedez... –eta telefonoa eskegi zuen.

Horrelaxe egin zen dena.

Aitaren heriotza iragarri zidan deiak kalean harrapatu ninduen. Urteak zeramatzan amak hilda ordurako. Aita hil zela jakin eta blokeatuta gelditu nintzen. Ezer sentitzeko erabat ezindua. Burua zuri, ezinezkoa zitzaidan ezertan pentsatzea, ezer sentitzea. Edonondik urrundu, ez nuen besterik nahi.

Minutuek alde egin zutenean berria onartzen hasi nintzen. Aitaren errautsak amaren ondoan jarriko nituen. Inolako zeremoniarik gabe. Horixe neraman buruan ospitalera sartzean. Heriotza egiaztatu zuen osagilearekin hitz egin nuen; haren bulegotik irten nintzenean, gizon bat neukan zain. Zaharra zen, mehea, ile zuria luze, bibote iletsua ere zuri, panazko praka nasaiak eta kapela bat esku artean, errentan bizi ziren baserritarrak ugazabari zerbaiten eskean zihoazenean bezala. Gizona aitaren laguna zen. Non eta noiz izango ziren haren hiletak galdetu zidan doluminak eman ondoren. Beste lagunak berari ari zitzaizkion galdezka, eta berak erantzunik ez. Argazki bat erakutsi zidan. Aitari egin zioten azkena. Ospitaleko gelan ageri zen, adin desberdinetako beste hiru gizonezko eta emakume baten artean. Aita argazkian erabat burusoildua zegoen, azala eta hezurra baino ez, ospitaleko txabusina jantzita eta makila baten laguntzaz zutik. Hala ere, bizitasun handiz begiratzen zion kamerari, eta irribarre zabala ageri zuen. Hunkitu egin nintzen. Disimulatu egin nuen.

Ekitaldi zibila izan zen. Egunkari bitan iragarri nuen eta jendetza hurbildu zen. Aurpegi batzuk hamarkada batzuk lehenago ezagutu nituenen aldaera zaharkituak ziren. Batzuk aitarekin ondo portatu ez zirenak, beste batzuk alderantziz, aita zen haiekin ondo portatu ez zena. Hala

ere, zerbaitek eraman zituen bertaraino. Denek ziruditen hunkituak, eurena zen zerbaite galdu izan balute bezala.

Ekitaldi hartara hurbildu ziren gehienak bizitza osoan ikusi gabeak ziren niretzat.

Albo batean eserita zegoen emakume batengan jarri nuen arreta. Emakume dotorea zen, nire adinekoa gutxi gorabehera. Jaka berdea zeraman eta negarrez ari zen eten-gabe. Bera ote da? Garai bateko ile gaztaintara ilunduta zeukan, lehen baino motzago, baina nola ahaztu haren irribarre erdi bizkor, erdi lotsatia.

–Jo, ez dakizu zenbatetan akordatzen naizen zure aitaz eta zuokin pasatu nituen aste haietaz –esan zidan ekitaldia bukatu eta handik ordu erdira, kafe baten aurrean. Taberna bateko kantoian geunden, mahai batera eserita.

Ixiar ez zen kazetari egin. Hemezortzi urterekin herria utzi –denok joan ginen herritik, ez bera bakarrik– eta ez zen sekula itzuli. Ez zuen sekula irratian lanik izan. Abokatua egin zen, mundua hobetzeko eraginkorragoa zelako, euren burua defenditzeko aukerarik ez zutenak defenditzeko.

Bere historia kontatu zidan: karrera amaitu berritan, etorkizun oparoa deika zeukan eta fiskaltzan hasi zen lanean. Oso gaztea zen oraindik. Auzi bat zeukaten esku artean. Berrogei urte lehenago inolako baimenik gabe txabola batzuk etxe duin bihurtu eta bertan bizi ziren senar-emazte batzuk ziren, dagoeneko erretiroa hartutakoak. Etxeen jabetza eskatzen zien Administrazioak. Euren abokatuak, ofiziokoa bera, ez zituen gauzak behar bezala egin. Dena ordena batean eta txukun eginez gero etxeak beraienak ziren jadanik. Abokatuak ez zituen horrela egin ordea. Erakundeek dirutza aurreztuko zuten akats horri esker. Ixiarrek gela

hartan zutitu eta abokatu gizajo hura txikitu behar zuen. Ez zitzaion zaila egingo. Baina, abokatuaren atzean eserita, kalera bidaliko zituzten gizon eta emakumeak zeuden, zain.

–Urteak eman nituen haserre zure aitarekin. Banekien nire onerako utzi ninduela osabarekin, baina minduta nengo. Gero, ulertu nuen berak zerbait erakutsi zidala: sinesten duzun horren alde egin behar dela, sarerik gabe. Bestela, damutu egingo zara. Ez dut sekula inor ezagutu haren erabakia zuenik, eta horren atzean etika bat zegoelako da; etika berezia, baina berak egiten zituenak bidezkoak zirela uste zuen. Ez dago beste biderik. Zutitu egin nintzen jendez lepo zegoen gela hartan. Denak zeuden niri begira. Zer egingo zukeen berak galdetu nion neure buruari, eta ez nuen erantzuna asko pentsatu beharrik izan. Sekulako speecha bota nuen eskubide eskuratuen alde. Giza duintasunaren alde. Bihotza ere baduten erakundearen alde. Eta denen aurrean iragarri nuen erakundeek onartzen zutela hainbesteko izerdiarekin eraikitako etxe haiek beraienak zirela. Erakundeek uko egiten ziotela ezer eskatzeari. Une batez abokatuaren atzean eseritakoek abokatuari begiratu zioten. Honek ez zekien zer gertatu zen, eta, egoera berria ulertzean, denak txaloka hasi zitzaizkidan. Txaloka eta elkar besarkatzen. Negarrez zeuden asko eta asko. Emakume txiki eta lodi bat bere onetik irtenda belaunikatu eta gelako sabaian zegoen norbaiti oihuka ari zitzaion, esku ahurrak erakusten zizkion bitartean. Hor bukatu zen nire etorkizun oparoa. Ez naiz sekula damutu. Horretaz ez.

Irribarretsu zegoen Ixiar kontakizuna bukatu zuenean. Nik ere barre egin nuen.

Ordubete eman genuen taberna hartako epeltasunean,
jadanik gure artean ez zeudenak gogoratu. Egin zizkiguten
mesedeak aletu genituen irribarre eta hitz neurtuen artean.
Kalte bakarra ere ez zen aipatu mahai inguru hartan.